

## **BANDOA**

Herritar guztiei jakinarazi nahi dizuet Larraulen hurrengo irailetik aurrera **HAURRESKOLA** eta **ESKOLA** martxan jarriko direla.

Haurreskola, "Haurreskolen Partzuergoaren" eskutik abian jarriko da. Matrikulazioari buruz, ondorengo hilabeteetan informazioa luzatuko zaizue interesa duzuen gurasoei.

Eskolari dagokionez, Pello Errota herri ikastetxeko bi gela Larraulen irekiko dira, honekin batera jangela zerbitzua ere jarriko da martxan Herri Ostatuan.

Guzti hau kontutan izanik, jakin dezazuen datozen hilabete hauetan, Pello Errota ikastetxeko ikasketa-buruak, 2004-2005 eta 2006 urteetan Larraulen jaiotako umeen gurasoekin bilera bat egingo dutela, eskolaren funtzionamenduak sortu ditzazken kezkak argitzeko.

Besterik gabe, berri hau zuen gustokoa izango delakoan, agurtzen naiz.

Larraulen, 2008 urteko apirilaren 4an.

ALKATEA  
Xabier Mujika Pagola